

## "Aitzol" eta *El Día* egunkaria

*Galtzaundi*, 1996-03-15.

Jose Ariztimuño "Aitzol"en lan osoetarako biografia idatzi nuenean izan nituen, zorionez, oraindik bizirik eta osasunez ongi zeuden pertsonen lekukotasunak. hauetako bat, nagusia behar bada, bere lagun mina zen Pío Montoya apaiza izan zen. Baita Antonio Labayen, Godo Hernandorena eta Manuel Lekuonarena ere, baina euskal politikako munduan Tolosak izan zuen garrantziaz, don Píok hitz egin zidan asko. Eta gaur, "Galtzaundi"rako lantxo hau idazterakoan, honen hitzak datorzkit gogora.

Eta Aitzolen nortasuna aipatzearren.

Garin herrixkan izan zuen esperientzia osasunez gaizki amaitu eta berehala proposatu zion alegitarra zen Montoyak bere lagunari, 1929ko San Jose egunaz, Donostian egunkari euskaltzale bat sortzeko asmoa. Dirua bere kontu. Une egokia zen honetarako. Alde batetik, Primo de Rivera behera zetorren, eta, bestetik, falta zen Gipuzkoako prentsan ikuspegi euskaltzale bat. Zeuden lau egunkariak: *La Constancia*, integrista; *El Pueblo Vasco*, kontserbadorea Picabea eta Urkolarekin; *La Voz de Guipúzcoa*, ezkerrekoa, eta arratsaldetan irteten zen *El País Vasco*. Bilbotik etortzen zen EAJ-PNVren Euzkadi abertzalea; aipatzen omen zen Alderdi honek Donostian, Urreta eta Barriola anaiak medio, zituen asmo batzu, baina Pío Montoyak asmo berriko berea Aitzoleri pasa zionean bertan jarri ziren egunkari euskaltzaleaz pentsatzen, eta aurreratu egin ziren tolosarraren dinamikaz: *El País Vasco* erosi zuten berehala, eta Aitzolek berak ekarri zuen zuzendari abertzalea eta EAJko kidea, Jabier Landaburu. Bitarte honetan agertu ziren ofizialki EAJko interesak zirenak ere, Donostian bertan ezagunak, baina batez ere Tolosan bertan Alderdiaren ikuspegitik sortu zirenak, zeren eta hemen dute interesa Pío Montoyak Tolosaz esandakoak: Abertzaletasunak indarra ez zuen Donostian, gehien bat marco liberalak zuen hemen garrantzia, Gorteak, batez ere udan, eta Estatuak, baina Gipuzkoako indar politikoa Tolosan zegoen: Alderdiko Isaka López-Mendizabal, Jon Andoni Irazusta, Pepe Izagirre, Antonio Labayen, "Lizardi", Aitzol bera, eta honez gain Doroteo Ziaurritz, Alderdiko lehendakaria izango zena (1935); baina honez gain aipatu zizkidan sozialisten buru zena, ez Eibarren, Tolosan baizik, de Francisco; anarkisten Viteri; karlisten Caballero, Aranburu eta Elosegitarrak.

Kuadroak badu garrantzia.

Eta hau esan eta gero seinalatu zidan garai hartako zauri bat: Tolosako alderdikideek nahi zutena zen Montoya-Aitzol tandemaren egunkari berria EBBren disziplinean jartzea. Aitzol eta ekonomikoki arduratu zen bere lagun Pío Montoya ez, ordea! Honek esan zidanez, eztabaida oso gogorra izan zen, eta hauen independentziaganako oinarrizko intransigentziak irabazi zuen, kazetaritzaz ari zirelako, ez politikaz, batez ere kultura gizona eta kazetari gartsua zen Aitzol.